



ikastolenelkartea



# **2020-2021 Ikasturte hasierako jarraibideak**

## Dokumentuaren antolaketa:

1. Sarrera
2. EHI eta Ikastolen arteko koordinazioa
3. Covid 19 kasuen kudeaketa ikastoletan
4. Ikuspegi pedagogikotik hainbat gomendio
5. Administrazio ezberdinei eskaerak

### **1. Sarrera**

COVID 19ak baldintzatutako momentua bizi dugu, bizimodua aldatu digu eta ikasturte berria ere baldintzatuko du. Hori dela eta, ezinbestean ikastolaratze ez ohiko bat definitzen eta antolatzen aritu ginen ekainean eta uztailean zehar. Ikasturtean biziko ditugun agertoki ezberdinak zehaztu eta horien balizko antolaketa egiten, kontingentzia planak egiten, ikasleen sarrera irteerak, eskola ordutegiak, jolasorduak eta abar zehazten. Ikuspegi orokor batetatik landu dugu ikasle eta familien ikastolara itzulera eta orain, irudikatutako horiek praktikara eramateko formula zehatzak definitu behar ditugu.

Orain artean landutako ideiak kontutan hartu eta zehaztapenetan fokua jartzea dagokigu, helburu horrekin sortu dugu ondorengo dokumentua eta ikastolentzat ikasturte hasiera korapilotsu honetan lagungarri izatea espero dugu.

## **2. EHI eta Ikastolen arteko koordinazioa.**

Ikastola ezberdinetan COVID 19ak sortutako egoera parekoak biziko ditugula argi dago; sintomak erakusten dituztenak, positibo emango duten ikasle, irakasle, ez dozente eta familia kideak... Guzti horiek ahalik eta era egoki eta eraginkorrean kudeatzeko ikastoletan COVID 19 erreferenteak izango diren pertsonak izendatzea beharrezkoa ikusten da (Zuzendaritza taldeak hartu dezake ardura edo beste lankide batzuk hartu dezakete ardura hau), pertsona hauen egitekoa COVID 19ak eragindako egoera ezberdinen aurrean kontsultak egin eta erantzunak ematea izango da.

Era berean, ikastolekin koordinazio eta komunikazioa bermatzeko, lan talde bat sortuko da EHIko Zuzendaritza taldeko 5 kide (Jose Luis, Patxi, Zigor, Josu eta Hur), Artezkaritza taldeko kide batzuk eta lurralde bakoitzeko Zuzendari batzuk (Gipuzkoatik 2, Bizkaitik 2, Arabatik 1, Nafarroatik 2 eta Iparraldetik 2) osatuko dutena. Lan talde honen helburua kasu bakoitzean sortu daitezkeen zalantzak argitzea, Ikastolei aholku ematea eta ematen ari diren egoera ezberdinen erregistroa eramatea izango da. Horretarako aipatutako talde honetako kideak ikastola konkretu batzuen erreferenteak izango dira. Ikastoletako Covid erreferenteak zalantza bat duten momentuan erreferente hauekin kontaktuan jartzeko aukera dute beraien aholkua jasotzeko. Era berean, ikastola batean Covid 19arekin erlazionatutako egoera bat suertatzen bada erreferente hauei komunikatuko zaie kasuen erregistro bateratu bat eramateko.

Lan talde honen osaerarako eta funtzionamendu egokirako ezinbestekoa izango da batetik administrazio ezberdinetatik jarraibide zehatzak jasotzea eta protokolo horietan oinarrituta formazioa jasotzea. Hasieran sortu daitezkeen egoerak egonezina eta urduritasuna sortu dezaketa eta jarraibideak eta informazioa era antolatu batean izatea ezinbestekoa izango da egoeren aurrean ekiteko, protokolo eta prozedurak ondo ezagutzen direla ziurtatzeko eta egoera guztietan erantzun egoki bat eman ahal izateko. Prestakuntza hori Administrazioak eman beharko lukeela uste dugu eta eskaera honek Administrazioetik erantzunik jasoko ez balu, ikastoletako eta EHIko prebentzio aholkularitza eskaintzen duten erakundeekin egin beharko da.

### **3. Covid 19 kasuen kudeaketa ikastoletan: Jarraibide orokorrak:**

**DERRIGORREZKO ETAPAKO** ikasle bat **IKASTOLARA JOATEA DERRIGORREZKOA DA** osasun-egoera onean badago.

Ikasle batek **EZ DU** ikastolara joan behar egoera hauetan:

- PCR baten edo beste proba diagnostiko molekular baten **emaitzaren zain dagoenean**.
- **Isolamenduan badago**, PCR bidez diagnostikatutako koronabirus-infekzio bat duelako.
- **Berrogeialdian badago**, COVID kasu baieztatu baten kontaktu estua delako.
- Koronabirus bidezko infekzioarekin bateragarriak diren sintomak baditu.

#### **Zein dira koronabirusaren sintomak?**

Edozein larritasuneko arnas infekzio akutuaren (aguda) koadro klinikoa duen edozein pertsona, besteak beste, sukarra, eztula edo aire faltaren sentazioa duena. Beste sintoma batzuk ere, hala nola odinofagia (jaterakoan mina izatea), anosmia (usaimena galtzea), ageusia (dastemenaren zentzua galtzea), giharretako minak, beherakoak, min torazikoa edo zefaleak, COVID-19 bidezko infekzioaren susmoaren sintomatizat har daitezke irizpide klinikoaren arabera.

#### **Nortzuk kontsideratzen dira kontaktu estua?**

- **Bizikidetzaren egonkorreko taldearen eremuan (EAEn LHko 2. maila arte)**, ikasle guztiak harreman estuztat hartuko dira.
- Lehen Hezkuntzako 3. mailatik aurrera, osasun-agintariek kontaktu estuztat hartuko dute ikasgelan ikaskideekin duten distantziaren eta maskaren erabileraren arabera. Hala ere irizpide nagusia honakoa da: Sintomak zituen kasu batekin leku berean 2 metro baino gutxiagoko distantziara, babes neurri gabe 15 minutuz gutxienez egondako pertsona (**Ondorioz ahalegin berezia jarria behar da kontaktua ez izateko neurriak betetzen**).

## Kasuen kudeaketa

Ikastetxean, are gehiago gaur egungo testuinguruan, kasuak garaiz detektatzea, isolatzea eta harreman estuak izatea segurtasun-ingurune bati eusteko eta hezkuntza- eta pedagogia-helburuak lortzeko neurri garrantzitsuenetako bat da. Gai honen inguruan gertatzen diren egoeren gaineko zalantzak argitzeko eta jarraibideak emateko Hezkuntza Sailak erreferente bat izendatuko du ikastetxe bakoitzerako. Iraileko lehen astean zehar izango dute erreferentziatzeko pertsona horrekin harremanetan jartzeko bideen gaineko informazioa.

### **Ikasle batek ikastolan COVIDekin bateragarriak diren sintomak baditu:**

1. Maskara kirurgiko bat emango zaio (2 urtetik gorakoa bada), eta beste bat zaintzen duen helduarentzat (gomendagarria kasu hauetarako irakasleaz gain pertsona bat-batzuk izendatuta izatea ikastola bakoitzean, ahal bada pertsona horren jarduera arrunta ez da ikasgeletan gauzatu behar), gurasoak edo tutoreak iritsi arte.
  2. Aireztapen egokia duen eta pedalezko paperontzi bat duen banakako gela batera eramango da, eta bertan botako dira erabili eta botatzeko diren (une horretarako bakarrik erabiliko dira) maskara eta zapiak.
  3. Familiari jakinaraziko zaio bere osasun-zentroarekin harremanetan jarri behar dela (familiaren ezaugarrien arabera ikastolak berak egin dezake gestio hori zuzenean) bere kasua ebaluatu, PCRren eskaera erabaki eta, hala badagokio, etxeko isolamendua adieraz dezan, emaitza jakin arte. Larritasun-zantzurik badu, 112 zenbakira deitu behar da.
  4. 24-48 orduko epean egingo da PCRa.
  5. Hasierako prozesu honetan eta balizko PCR frogen emaitzak ezagutu arte bere taldeko ikasleek zein irakasleek ikastolan jarraituko dute.
- Frogen **emaitzak negatiboak** badira:
    1. Bere taldeko ikasleek eta irakasleek bere jarduera arruntan jarraituko dute.
    2. Froga egin dioten ikaslearen kasuan Osasun-zentroko profesionalak jarraipena egingo dute eta alta adieraziko dute egokia iruditzen zaien momentuan (kasu hauetan ez da derrigorrezkoa bigarren PCR froga ikastolara bueltatzeko)

- Frogen **emaitzak positiboak** badira:
  1. **Ikastolak** ezarritako protokoloaren arabera **informazio hau modu antolatuan eta erraz eskuratzeko moduan jasotzea** gomendatzen zaio: Bizikidetza-talde egonkor bakoitzeko ikasleen zerrenda; Gela, tailer eta laborategi bakoitzeko ikasleen zerrenda eta jardueraren zehaztapenak; Jantoki-txandako ikasleen zerrenda; autobusena ....
  2. Kontaktatu estukoak izan ez diren ikasleek eta irakasleek ikastolan jarraituko dute.
  3. Kontaktatu estukoak izan badira:
    - ❑ **Ikasleei berrogeialdia adieraziko zaie** (salbu eta PCR bidez baieztatutako koronabirus infekzioa izan badute edo aurreko 6 hilabeteetan proba serologiko positiboa izan badute), PCR froga egin eta emaitza negatiboak ematen badira ere 10-14 egun pasa ondoren beste froga bat egingo zaie negatiboak direla ziurtatzeko. **Hau guztia Osasun Zentroarekin koordinatu eta bere agintepean egin beharko da.**
  
    - ❑ **Irakasleen kasuetan** Laneko Arriskuen prebentzio zerbitzuari emango zaio horren berri eta **kontaktatu estua izan bada berrogeialdia adieraziko zaio** eta lantegian **“gaixotasun profesionala”ren kontsiderazioa izango du**. PCR froga egin eta emaitza negatiboak ematen badira ere 10-14 egun pasa ondoren beste froga bat egingo zaie negatiboa direla ziurtatzeko. Hau guztia Lan arriskuen **Prebentzio Zerbitzuen koordinatu eta bere agintepean egin beharko da.**

Positibo eman dutenen **ikastolara itzultzea**:

Ospitaleratzeko irizpiderik izan ez duten ikasleak gutxienez 10 egunez isolatuko dira, betiere 3 egun daramatzate sintomarik gabe. Osasun-zentroko profesionalak jarraipena egingo dute eta alta adieraziko dute. Ez da kontroleko PCRrik behar ikastetxera itzultzeko.

Ikasle batek **ikastetxetik kanpo** COVIDekin bateragarriak diren **sintomak baditu**:

1. Gurasoak edo tutoreak harremanetan jarriko dira ikastolako zuzendaritzarekin edo tutorearekin, beren osasun-zentroarekin edo Osasun Aholkularitzako Zerbitzuaren erreferentziako telefonoarekin, haien kasua ebaluatu, PCRren eskaera erabaki eta, hala badagokio, etxeko isolamendua adieraz dadin, emaitza jakin arte.

- **Negatiboa** ematen badu

1. Osasun-zentroko profesionalak jarraipena egingo dute eta alta adieraziko dute.
2. Bere taldekideek eta irakasleek ikastolan jarraituko dute normaltasun osoarekin.

- **Positiboa** ematen badu:

Aurreko kasuan jarraitu den protokolo berdina jarraituko da.

Prozesu guzti hau era grafiko batean adierazita segidako loturan eskuratu daiteke:

[COVID KUDEAKETA - ZER EGIN](#)

#### 4. Ikuspegi pedagogikotik hainbat gomendio

Ikastolak sortu daitezkeen egoera ezberdinak aurreikusi eta horietan nola jokatu behar den idatziz jaso behar du eta langileei komunikatu behar die, guztiok prozesuak ezagutzea eta adostea ezinbestekoa izango da jardun egoki eta koherente bat izateko. Aurreikusi daitezkeen egoera batzuk hauek lirateke:

Ikasle talde osoa etxean isolatuta egotea.	Ikasle bat 14 egunez edo gehiagoz etxean isolatuta egotea.	Ikasleak gelan egotea eta irakasle bat etxean izatea.
--	--	---

Honelako egoerak ematen direnerako zer eta nola jokatu behar dugun definitu behar da eta irizpide bateratuak sortu behar ditugu etapa edo ziklo ezberdinetako langile guztiekin adostuta. Orain artean izan ez ditugun programazio eskakizunak eta erregistroak eramatea eskatuko digu.

Esate baterako, irakasle batek etxean isolatuta egon behar badu, irakasle ordezkoa kontratatuko da eta irakasle horrek hurrengo bi astetan egin behar duena jakin behar du. Horretarako lagungarria izango da irakasle titular horrek hurrengo bi asteetako programazioa eginda izatea. Aldi berean, era telematikoan irakasle titularrak ordezkoari azalpenak ematea ere ondo legoke. Horrelako neurriak adostu eta aurreikustea eraginkorra izango da.

Fokua ikasleengan jartzerakoan egoerak nahasiagoak izan daitezke. Baliteke ikasle bakarra isolatuta egotea, baliteke talde osoa isolatzea (irakaslea barne), baliteke ikasle horietako gehienak emaitza negatiboa izatea eta beraz osasuntsu baina itxialdian egotea edo sintomarik ez izatea... egoera horietan egin beharreko jarraipena, komunikazioa, lanketa eta abar zehaztu behar dira aurrez. Ikasle horiek etxean dauden bitartean ikastolarekin eta elkarrekin harremana mantentzeko beharra izango dute, horrez gain, hizkuntza ikuspegia ere oso presente izan behar dugu eta baita beraien ikasketa prozesuarekin jarraitu beharko dutela. Guzti hau kontutan izanik, irizpide komunak ezartzea beharrezkoa da etapa bakoitzeko (ziklo/ maila bakoitzeko) lankide guztiek berdin jardun dezaten eta hezkuntza komunitatearen aurrean koordinatuta agertu gaitzen.

IKASLE BAKARRA ITXIALDIAN	
<b>Ikasleak sintomak ditu, gaixo dago.</b>	<p><b>Ikasleak isolatuta</b> egon behar du <b>baina</b> froga negatiboa du edo ez ditu sintomarik, hau da, <b>osasuntsu</b> dago.</p> <p>Irakasleak ikastolan adostutako prozedura jarraituko du eta horrela erabakitzen den kasuan ikasketa prozesuarekin jarraitzeko azalpenak eskaini eta egitekoak bidaliko dizkio. Ikaslearekin komunikazioa izatea bermatuko da, jarraipena egingo zaio.</p>
Gaixo dagoen bitartean familiarekin komunikatu eta egoeraren jarraipena egin.	
Berrito ere osasuntsu sentitzen denean irakasleak komunikazioa eta jarraipena bermatuko du. Irakasleak ikastolara itzuli arte egitekoak bidaliko dizkio horrela baloratzen badu	



IKASLE TALDEA ITXIALDIAN	
Ikasle batzuk sintomak dituzte, gaixo daude.	Ikasle batzuk isolatuta egon behar dute baina froga negatiboa dute edo sintomarik ez dute erakusten, hau da, <b>osasuntsu daude.</b>
Gaixo dagoen bitartean familiarekin komunikatu eta egoeraren jarraipena egin (Irakasle titularrak edo ordezkoak)	Irakasle titularrak edo ordezkoak (egoeraren baitan) ikastolan adostutako prozedura jarraituko du eta horrela erabakitzen den kasuan irakasle titularrak planifikatutakoa lantzen jarraituko du. Ikaslearekin komunikazioa izatea bermatuko da, jarraipena egingo zaio.
Berriro ere osasuntsu sentitzen denean irakasleak komunikazioa eta jarraipena bermatuko du. Irakasleak egitekoak bidaliko dizkio horrela baloratzen badu	

## **5. Hezkuntza Sailari/ Departamentuari/ Ministerioari eskaerak.**

Euskal Herria osatzen duten lurralde ezberdinetan kokatzen dira ikastolak eta ondorioz administrazio ezberdinen kudeaketa bizi dute. Kasu guztietan ideia argi bat komunikatu behar diogu tokiko administrazioari eta ondorengoa da: sare publikoak eta kontzertatuak osatzen dugu hezkuntza sistema publikoa eta guztiok behar ditugu baliabide gehiago. Ohikoa da administrazioak egiten dituen inbertsio eta bestelakoak sare publikora begira egitea eta era honetan, ikasle eta familia asko (EAEn esaterako %50a) baztertu egiten dira.

Egin dugun hausnarketan, 4 esparru orokorretan eragiteko baliabideak gehitzea eskatzen dugu:

1. **Ordezkapenak antolatzeko:** argi dago hezitzaile eta hezkuntzako langileak kutxatzeko arriskua handia dela eta gertatzen den kasuan pertsona horiek ordezkatuko dituzten pertsonak kontratatzeke beharra egongo dela.
2. **Ratioak egokitzeko:** COVID 19ak sortuko dituen eragozpenak murrizteko talde txikiagoak egitea eta espazioaren antolaketa egokia egitea eraginkorra dela ikusi da dagoeneko esperientzia ezberdinetan. Ratioak jaistearren irizpidea ikasleen arteko distantziarekin lotzea ezinbestekoa da eta ondorio bezala talde kopurua gehitzea dakar, talde guztiei erantzun ahal izateko hezitzaile gehiago beharko dira.

3. **Covid erreferentea liberatzeko:** Hezkuntza Sailak eskatu duen erreferentea izendatzeko eta honek izango duen lan karga errekonozitzeko finantziarioa beharko genuke.
4. **Baliabide teknologikoez hornitzeko:** Itxialdi baten aurrean baliabide teknologikoez eta internetak eskaintzen dizkiguten aukerak asko dira. Azken konfinamenduan ere ikusi da zenbaterainoko lagungarriak izan diren.
5. **Garbitasuna indartzeko:** COVID 19aren prebentzioan norbanako higieñez gain, espazio eta altzarien garbitasunak eta aireztatzeak duten garrantzia azpimarratu da. Garbitasuna indartzeko maiztasuna areagotzea ezinbestekoa da eta horretarako baliabideak gehitzea beharrezkoa izango da.
6. **Egoera zaurgarrian egon daitekeen ikasleen jarraipena bermatzeko:** Euskararen erabilera, ikasketa premia bereziak eta bestelako inguruan itxialdi egoeran ikasle askok jasan duten egoera ezberdinei erantzun egokia emateko baliabide gehiago ezinbestekoak dira.
7. **Zerbitzuen antolaketa:** jantoki zerbitzua, zaintza zerbitzua eta bestelakoak era seguruan antolatu ahal izateko baliabide pertsonal gehiago, denbora tarte zabalagoak antolatu eta abar egin beharko dira. Ondorioz, zerbitzu ezberdinetan gain kostuak izango ditugu eta horiei aurre egiteko diru laguntzak behar dira.

Baliabideetaz hitz egiten dugunean beraz zentzu zabalean egiten dugu; baliabide pertsonalak eta materialak kontzeptu batean bilduz. Administrazio batzuk neurri batzuk hartu dituzte, garbitasuna indartzeko diru partida bat aurreikusiz, irakasle gehiago kontratatuz... Gainera hezkuntza indartzeko Europatik etorritako diru laguntzak hor daudela oso presente izan behar dugu eta diru horren erabilera egoki eta ekitatiboa egiten dela ziurtatu behar dugu administrazioak presionatuz.

Gogoeta honekin jarraitzeko, aipatu nahiko genituzke gizarte mailan gertatzen ari diren erreakzio ezberdinak. Denak eragin negatiboa izan dezakete ikasturtearen hasiera honetan eta aurrez gogoeta egin eta erabakiak hartzea beharrezkoa da.

1. Lanari **UKO** egiteko dokumentu idatzi bat zabaldu da hezkuntza komunitateko kideen artean, litekeena da gure klaustroan dokumentu hori aurkezten duten lankideak egotea eta horri zein erantzun eman behar zaion ondo jasota izan behar dugu.

2. Egoeraren aurrean **negazionista** direnak ere ugaritu dira azkenaldian. Baliteke gure lankideen artean ere honelako joera eta ideiak dituztenak egotea. Argi izan behar dugu erabaki pertsonalek ezin dutela Ikastolak hartutako erabakien gainetik egon eta horrela egiten saiatuz gero izango lituzketen ondorioak ondo jasotzea ezinbestekoa da.
3. Azkenik, haurrak ikastolara eraman nahi ez dituzten familiak egongo dira, baita joan nahi ez duten ikasleak ere. Egoera horrek **absentismoa** sortuko luke eta ondoren jarraitu beharreko prozedura ere definituta dago. Egoera horien aurrean nola jokatu behar den argi jasotzea beharrezkoa da.

Azken puntu bezala, **KOMUNIKAZIO**Aren garrantzia aipatu nahi dugu. Komunikazioa gakoa izango da hezkuntza komunitateari segurtasuna eta konfiantza transmititzeko. Lankideekiko komunikazioa eta familiekiko komunikazioa da landu eta garatu behar duguna. Hartzen diren erabakien berri eman, protokolo ezberdinen berri eman, bakoitzak nola jokatu behar duen argi adierazi, zer, nola eta noiz egin behar den definituta dagoenean jakin behar duenari komunikatu behar zaio.

Komunikazio eraginkor batek gatazkak, beldurrak, kezkek eta liskarrak ekidin ditzake, familiek eta lankideek etengabe lanean eta pentsatzen aritu garela jaso behar dute eta itzulera hau ondo pentsatu eta planifikatuta dagoela adierazi behar zaie. Horretarako bide ezberdinak jorratu behar dira: familientzako bideoak eta tutoriak errazak, lankideentzako mezu argiak, protokolo zehatzak, etapako bileratan lanketa espezifikokoak eta abar egin beharko ditugu; denbora inbertitu behar dugu ondoren sortu daitezkeen arazoak saihesteko.

Gogoratzeko dugu taldeko bilerak, koordinazio bilerak eta bestelakoak egin daitezkeela beti ere prebentzio neurriak hartuta (segurtasun tartea mantenduz eta musukoak erabilia).